

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Asfi Itxako Navarra taldeko jokalaria zoriondu ditu egindako denboraldi bikainarengatik

Ligako, Erreginaren Kopako eta Espainiako Superkopako txapeldunak izan dira

Viernes, 18 de mayo de 2012

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak Asfi Itxako Navarra emakumezkoen eskubaloia taldeko jokari, teknikari eta zuzendariak zoriondu ditu gaur 2011-2012 denboraldi "oparoa"-gatik. Ligako, Erreginaren Kopako eta Espainiako Superkopako txapeldunak izan dira eta, Europako zortzi talderik onenekin lehian, Champions League-eko erronda nagusira iritsi dira.



Barcina Lehendakaria Asfi Itxako Navarra taldeko kideekin.

"Foru Gobernuaren eta nafar guztien izenean, gure zorionik zintzoena adierazi nahi dizuet", esan du Lehendakariak. "Neurri handi batean Nafarroako kirolaren izen ona hobetzen laguntzen duzue eta eskubaloiaz harro sentiarazten gaituzue", gaineratu du.

Hitz hauek Nafarroako Jauregiko Tronoaren Aretoan burutu den ekitaldi batean esan ditu Yolanda Barcinak. Bertan izan dira, halaber, Elena Torres, Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria kontseilaria; Fernando Asenjo, Espainiako Eskubaloia Federazioko lehendakariordea; eta Miguel Bujanda, Asfi Itxako Navarra taldeko lehendakaria.

Asfi Itxako Navarra taldeko lehendakariak zorion hitzak eskertu ditu, baita zaletu eta babesleen laguntza eta taldeak egindako lana ere. Guzti horri esker "denboraldi zail batean titulu asko lortu ahal izan dira", esan du.

Bestalde, Espainiako Eskubaloia Federazioko lehendakariordeak nabarmendu du Nafarroako eskubaloiak



Barcina Lehendakaria Asfi Itxako Navarra taldearen kamisetarekin.

“maila handia” duela eta, Asfi Itxako Navarra-ri buruz, “emakumezkoena duindu duzue” adierazi du.

Ligako Koparen ematea

Harrera berean, 2011-2012 Ligako Kopa eman dio Lehendakariak taldeari. Naiara Egozkue taldeko kapitainetariko batek jaso du. Jokalariak eta teknikariak, gainera, domina bat jaso dute.

Bestetik, Nafarroako ezkutua eman die Lehendakariak eta Asfi Itxako Navarra taldeak ospakizunaren oroitzapenezko opari batekin erantzun dio: jokalarien kamiseta ofiziala eta bufanda bat.

Gogora ekarri behar da Asfi Itxako Navarra-ko jokalaria 4. urtez jarraian izan direla Ligako txapendun, eta 3. urtez jarraian irabazi dutela Erreginaren Kopa eta Espainiako Superkopa. 2008. urtetik nazio mailako hamar titulu eta Europa mailako bat lortu dituzte.